

Bizkaiko ume-olgeten lexikoaz

IÑAKI GAMINDE*

Artikulu honetan Bizkaiko hainbat herritan ume-olgetekin lotutako lexiko tradizionala batzen dugu. Artikuluaren helburua bikoitza da; batetik, lexikoa bera lantzea dugu helburu, baina bestetik, euskararen normalizazio bidean, eskoletako maisu-maistren artean susmatzen den alor honetako eskaziari ere nolabaiteko erantzuna eman nahi zaio. Badakigu lekuan lekuko lexikoa erabiltzea onena dena eta herri euskaldunetan umeen altxorra eskolako hizkuntzan erraz integra daitekeena. Hala ere, ingurugiro erdaldunetan uste dugu tradizioak hitz franko eman diezazkigukeela gauza berriak asmatzen ibili barik.

Hemen biltzen ditugun olgeta batzuk gaur egun egiten ez badira ere, interesgarri eritzi diogu lexiko guztia batzeari, izan ere, zaharkituarren agertzen diren hitz asko egun baliagarriak izan daitezke. Bestalde, interesgarri ere iritzi diogu lekukoek eurek emandako olgeten deskripzioa jasotako era berean aurkezteari; batetik, jokoaren deskripzioagatik beragatik, eta bestetik, ukaezinezko iteres linguistikoagatik ere bai. Lanaren azken zatian errezipitatu mota batzuk ere bildu ditugu.

Ahozko testuen traskripziorik ahalik zehatzen egin gura izan da, beronek zenbaitetan irakurketa zail dezakeenez gero, gure eritzi, oztopo izan daitezkeen hitzak orriaren azpian beste era batera adierazten ditugu. Traskripzioari dagokionez, Barandiaranek, Azkuek, eta abarrek erabilitako antzeko sistema tradizionala darabilgu.

Azkenik, hona hemen izan ditugun lekukoeren zerrenda denei eskerrik be-roenak hemendik bialtzen dizkiedalarik:

Aulestia: Maribi Unamuno. Axangiz: Gegroria Egia, Alberto Irazabal. Baskio: Jose Mari Antxustegi. Barrika: Bizenta Zabala. Bermeo: Justa Bereistain, Maria Salome Ispisua. Elantxobe: Carmen Fernandez, A. Goenaga, Koro Agote, M. D. Eiguren. Forua: Bibiana Ansotegi, Pedro Mari Ansotegi. Gati-

* EHU/UPV.

ka: Bibiana Barandika, Karmen Goirigolzarri, Kontxi Larrauri, M^a Jesus Elgoibar, Bernardino Arostegi, Gregorio Ereñozaga, Esther Elgoibar. Ibarrangelua: Amparo Goitia. Larrabetzu: Begoña Arteaga. Laukiz: M^a Luisa Otazua, Felisa Otazua. Leioa: Alizia Elordui. Lekeitio: Miren Urkiaga, Rufo Atxurra, C. Anakabe. Lemoiz: M^a Luisa Arruza. Lezama: Rosi Goiri, Jose Domingo Rementería, G. Bidaurrazaga, Miren Menika. Mungia: Justa Beldarrain, Benar Mandaluniz. Muxika: Juan Kruz Aldana. Nabarriz: J. Beaskoa, E. Gabikaldekoa. Otxandio: Felisa Ajuria, Pilar Olaso Sopela: Xabier Legarra, Juana Basarte, Luis Oleagagoitia. Urduliz: Isabel Olarra, Jesus Zunuznegi, Mario Otazua, M^a Teresa Garitaonandia, Jose Azpiazu, Iñaki Gili-sasti. Zeanuri: Teodora Zulora, L. Ozerinjauregi, Pili Ziarrusta. Zeberio: Andres Arroita Zollo: N. Sagardui, B. Borde.

Olegeten lexikoaren aurkezpenean, Etniker taldeek plazaratutako Juegos Infantiles en Vasconia deritzon lanean egiten den olgeten sailkapenari jarraitzen diot gehien bat. Berori dela eta, lexikoa hamar multzotan bananduta ematen dut: 1. Izkutatzeakoak, 2. Elkar harrapatzeakoak, 3. Saltu eta karra egitekoak, 4. Zabukatzekoak, 5. Jaurtitzekoak, 6. Trebeziazkoak, 7. Igertzeakoak, 8. Hizkuntza olgetak, 9. Jostailuakaz egitekoak eta 10. Gainerakoak. Bestalde, lanaren amaieran joku desberdinekin lotzen diren material linguistikoak batzen ditugu beste hiru zatitan: 11. Jokuen formulak, 12. Zotz egiteko formulak eta 13. Gorputz egokerak.

1. IZKUTATZEKOAK.

AJURITOKA (Zeberio.): Ostondu egiten da bat eta besteak harrapatze-ra; *“ajuritoka da ostondu, edo arbolan atzean edo etzean atzean edo, ostondu, da paretan geintzen olan ostondute, da bat egote san an a dana yagoten, bat egote san, aik koyitan bat baya porrejenplo ni yoaten baneitzen galapan, edo egote san pedo iteko sera, poste bat esta? señalea, ajurito por jabi por mi pedo, bi isin beasan, ta ostean galapan basabis arkal koyitan koike esaten geuntzen guk”*

BALE-BALEKA (Bermeo.): Kuike.

BALEKA (Elantxobe.): Kuike.

BAPIRUKA (Bermeo.): Kuike.

KOA (Bakio): Kuiken libratu ahal izateko, behin behar den lekuan ikutuz gero, berau esaten zen.

KUBI (Abadiño): Ezkutunetik agertzea.

KUBIKE (Abadiño): Kukuka *“Gureosue ala kubike olgeu diun?” kubike olgau: kuika egin. “Bat kontatzen geratzen da lekuen eta besteak gorde egiten dira, lekuan dagoenak, besteak aurkitu behar ditu”*

KUI (Dima, Mungia, Zeanuri): Kuiken libratu ahal izateko, behin behar den lekuan ikutuz gero, berau esaten zen; *“Ak, a, lo daunak a, ikusi baño le-lau allegaten bada ara libre, ak esauen lorik in berrixeten, kui esate san (Mungia)”*

KUIKE (Bakio Barrika, Dima, Forua, Gatika, Igorre, Larrabetzu, Orozko, Urduliz, Zollo); *“Bat a, parate san orma kontran, oseake orma kontran edo ate kontran, eta kontateidxesan amarrerarte edo ogeirarte edo segun, asao dxoan ber basan olgetan ogeirarte, eta esate san ogei edo, eta ya urteten, ya ostute egoten siñien, ta lelengo topetan deuenak, beti gero ak in berrixeteidxen topetan badeu lelengo koxitan deuenak ak gero segidu berrixeteidxen eta bestiek ostuten sien*

(Bakio)”; *“Kuike ostelduten, bat lotzean san, begiek itxite da besteak osteldu, baten bat bile doa, olan sartzean san.(Igorre)”*

KUKU (Forua, Lekeitio): Izkutatu, ostendu.

KUKUKE

1.(Abadiño, Zornotza): Kukuka, kubike; *“kontau te askenak urteten deuen aixe, kontaute bat, bi, iru, lau, gero toketan dxakona numeroa aspi geldittu, arrape dotzut, estu esaten? bai (Zornotza)”*

2.(Elantxobe, Lezama) Izkutunetik begiratzea.

OSTALTARA (Lezama): Kuike.

OSTANTARA (Galdakao): Kuike; *“Yoatesien, kuadrille bat ostonduten eta bat gerate san lo, eta konteu, konteuasketiño amarrerarte, porrejenplo badeko sera ifiñite numeroa, ba amarrerarte konteu da ostondu estana ba bistan ongo da”*

OSTON-OSTONKA (Zeanuri): Kuike; *“Ori da lo modun paraute besteak ostondu danak, ostondu orduen a yoaten da gero, lo daona, altzau te yoaten da topetan, ukututen butzo oneri, berak eskapaten dauen orduen ukututen butzo oneri ak galdu iten dau lo daonak, ta gero bestea topetan doa”*

OSTUKARREN (Gatika, Sopela, Urduliz): Ostenduka.

OSTUKER (Sopela): Izkutuan.

OSTU-OSTUKE (Bermeo, Gatika, Lemoiz, Mungia, Urduliz): Kuike eta baita elkar harrapatzeko jokoa ere; *“Olan ostute paraten sanen a topetan esta? eta paraje paraten sanean erretan esate san, eta asao paraten sanen otzittuten, otzittuten (Gatika)”*

TEMAKA (Forua): Kuike

2. ELKAR HARRAPATZEKOAK

AMASA AMASARA: *“Portikun kasu beterako amasa-amasara, eta aurrekalde, portiku, Lemoisko parroikik buelta gustin deko portiku, eta aurrekalden parate san a, tokate yakona lotxen ta koisten, eta ayek¹ andi bijilaten ta bestek buelta gustiñ ibiltxen giñen, eta karo batzuten ba tapa tapa iñ eta ekarten, kuadrille ixeten giñeles, ba bat daonen arten da arrin ganera ekarritxe ‘alto por todos los compañeros’ ta listo, ayek salbate yesan².(Lemoiz)”*

ATRAPATZERA (Elantxobe): Harrapatzera.

ITZU-ITZUKA (Lekeitio): Itsu-itsuka.

ITZU-ITZUKE (Gatika, Lemoiz, Lezama, Sopela, Ondarru): Itsu-itsuka.

KALDERON: Kalderon; *“para danok yarritxe olan a, korron ta atzeti, karraderan bat eta imintxeyen a, sera, pañelu edo sera, eta koisten basan ba, seren, ba eskapate sendun, baya koisten espasendun, ba suk lotu ber gero sertzeko. (Lemoiz)”*

KOIKE (Zeberio.): Karraderan, galapan batak bestea harrapatzea; *“ajuritoka da ostondu, edo arbolan atzean edo etzean atzean edo, ostondu, da paretan geintzen olan ostondute, da bat egote san an a dana yagoten, bat egote san, aik koyitan bat baya porrejenplo ni yoaten baneitzen galapan, edo egote san pedo iteko sera, poste bat esta? señalea, ajurito por jabi por mi pedo, bi isin beasan, ta ostean galapan basabis arkal koyitan koike esaten geuntzen guk”*

1. ayek: hark.

2. yesan: zituen.

KOYU-KOYUKE (Gatika, Lezama, Urduliz): Harrapaketan.

KOXI-KOXIKA (Zeanuri): *“Guk koxi koxika iten gindun ordun goatu, goatu iten gindun bestea ta a goatuskero bera gero batzean, atzera, arinke, al dan gustien arinke igual yausi agiñik”*

MARRO (Galdakao, Zollo): Elkar harrapatzen; *“A parate san begik tapaute bastar baten, da bestiek ostondute, badoa topetan topetan da marroa esaten yakon arri bet edo segoser imintesan muestrie, da a andi den bitartien elduten dana lenago, a libre (Zollo)”*; *“Paretan da bat onetara, begik tapaute da bestiek iten dire ostondu, te ak marrokoak a, esaten yako, gordeta sanien bale, kui edo bale, eta a ya topetan doa, da an marroan dauna topetan dabilen bitertien suk igual urtein de karraka ara marroara allegetan sara ta gero ak bestiek topetan ibili beadau. (Zollo)”*

MARROKA (Bakio, Barrika, Gatika, Mungia, Zeberio): Elkar harrapatzen; *“Alkar arrapaten marroka, parate sien kasu beterako, ba lau edo bost edo sortzi edo semet ixete sien? lau goidxen da lau bian, eta erdire urtetan sendun, ori eskolan bere bai, eta urtetan sendun ta bestiek urten, ta suk kasu beterako koxu barik sartzen basendun, bestien etzera sartzen basiñen ordun irebasten sendun, emen ote san marra, eta bueno, emen lau te an lau, eta allegetan basiñen bestiek koxu barik, emetik urtetan dauenak koxu barik ordun irebasi itxen sendun (Bakio)”*; *“Marroka itten da, ostu eta imiñi markea eta a ostuko ara yoten da irebasten, bien bittarten koiten espadeu, bestek koyu in ber deu, topa ta koyu, ta topa ta koyu itten espadeu, bestek eskapa itten deu eta arbolara ukutu itten. (Gatika)”*; *“Ba orixe, alkar koyiten, marro, parate siren olan a, illedan esta? ta batek urtetan sauen eta a allega baño lelau beran lekure koyiten basaun marro. (Mungia)”*; *“Marroka da, seinde kuadrilla bi, emen daus lau kasureko d’an beste lau, eta in bisiteuen, pidoa edo sera, ta andi tokaten yakonak, bateti edo beseti tokaten yakonak, urtengo dau ara beste arbola batera ta a koitan doa (Zeberio)”*

SANPOKITOKA (Zeanuri): Itsu-itsuka; *“Begiek tapaute bestea goatzean ibilite san ta bien bitartean yo iten gindun al dan gustien txapelagas, eskapau iten guntzen al dan lekuti te ak besteak arrapau arte esku barruen olan iten gindun”*

TIENTERA (Sopela): Elkar harrapatu eta libratu.

3. SALTU ETA KARRA EGITEKOAK

ANDAKA

1. (Abadiño, Zeberio): Lepoan eroatea edo biren artean eskuak trabesean helduta, eta aulki gisa noronor jarrita eroatea.

2. (Bermeo) Asto-astoka: *“andaka da ba bat ero, iru lagun, beste iru lagun ero lau lagun, aren ganera saltaten.”*

ANDANDAKA

1. (Abadiño): Lepoan eroatea eta batetik bestera pasatzea.

2. (Elantxobe.) Pertsona eroatea eskuz hartuta.

ARRE-LEPOKA (Elantxobe, Ondarru): Bestearen lepoan paratu eta zein lehenagoka.

ASTO-ASTOKA (Elantxobe): Asto astoka

ASTORIK MANDOKA (Lekeitio): Txorro-morro.

ATZE-ATZEKA (Elantxobe, Ondarru): Atze-atzeka zein arinago.

KARRAMARRUKE (Elantxobe): Behearen gainean jarrita atzerantza ibiltzea, nor lehenagoka.

KORREN-KORRENKA (Ondarru): Birak ematen, zein arinago.

KORRU (Zeberio., Zollo): Borobil bat osatzea, korroa.

KORRUN EIÑ (Elantxobe.): Korroan egin

KURRILLON KURRILLONERA: Denak lurrian jarrita korroan paratzen ziren, bat atzetik bueltaka zapi bat eskuan zuela, haietariko bati zapia jaurtitzien zion eta berorrek inork igarri barik hartu behar zuen zapia, harrapatuz gero berak ibili behar izaten zuen zapiaz atzetik bueltaka. Abadiñoko Mendiolan egiten zen joko hau honako kantuak lagunduta:

Kurrillon kurrillonera

sun sunera

korabilluen korabilluen

ondo ondo gorde

atzien eskue dabillena

estabilela.

PASE MUSIEN (Zollo): Eskuez arkuia egin bik eta besteak azpitik pasatu.

POPASKA (Elantxobe.): Ipurdia behea jotzen dela ibiliaz, zein arinago.

SALTU-SALTUKE (Gatika): asto-astoka.

SOKAN (Dima, Galdakao, Lezama, Zollo): Soka dantza. **soka dxantza** (Elantxobe, Otxandio). **soka yantza**. (Barrika, Gatika, Larrabetzu, Lemoiz, Sopela, Urduliz, Zeberio)

TTITTIAN POTTIAN (Ondarru): Hanka puntetan ibiliaz, zein arinago.

TXIKOTIN (Lekeitio): Soka dantza; “*Txikotin, txikota andi bateas bai, da egoten giñian ba, ori, selakua da bera? ixaten san ba bikua, irukua, laukua, ixaten sirin, igual e, lau batera saltaten txikotian da bi be bai*”

TXORRO-MORRO (Bakio, Forua, Larrabetzu, Lemoiz, Zeberio, Zollo): “*Txorro, morro, piko, tallo, ke* (Bakio, Forua, Zeberio, Zollo)”; “*Atzamarrakas, txorro, morro, piko, tallo, ke, d’aspin daonak igerriten aber se atzamar dekosun.* (Zollo)”

TXORRO-MORROKA (Lezama, Nabarriz).

URRU URRUE (Abadiño): Korroa “*Biribilketa esaten dxakonai guk urru urrue esaten geuntzen*”

Salto eta karra egiteko olgeten artean “trukamuka” edo deritzona bereiztu egingo dugu; olgeta honetan behearen gainean lauki batzuk egiten dira eta gero harri zapal bat jaurtita, berau hanka baten gainean eroan behar izaten da.

ARREMANEKOKA (Zeanuri):

“*Anka baten ganean arrie eroaten da, anka baten ganean.*”

- Senbet kuadru egiten senduen?

ba, lau edo, lau isite sirean, pentzaten dot, lau lerro, lau, eta gero bosgarreneti bota, laugarrenera.

- Ser botaten senduen?

arrie, arri selaitxue, geratu deiten, lerroan geratueskero galdu ite san, bota beasan garbire, geroiminte san esku arrie an, urruko lerroa pasau orduen eta gero anka koxoan eroan.”

ERRAI, ERRAIRE (Larrabetzu): “*Errayek in, olan satiek satiek, eta arri bet arrie isin ditela tallea edo, tallea lisutxue, anka bat goyen dala, in bat, bi, iru,*

olan ba in, erre barik, pase biosun buelta gustie arrie ta pareta basan erraye, ba bueno ba txarra.”

FAMIAKA (Elantxobe.), KOXO-BAJAKA (Elantxobe), KOIXOPLA (Bermeo), MARIKETAN IN (Zeberio), PRIMERA SEGUNDAKA (Nabarriz), TRUKUME (Lezama).

KISKETEN (Barrika): *“talla sati bet eta lurreko kuadruten itten dan olgete”*

MARIKETAN (Galdakao, Zollo): *“Olan erditi errai bet in, da gero, bueno kuadru bet in, da erditi errai bet, da gero onetara, da kuadrue kuadrue primera, segunda, sestararte, ta marike bat, arri bet lisue, arrie, yo kadereagas koxo d’eroan, d’ara allegetan sirenean erdire, gora, deskantzeu, d’atzera koxo pareu de ona bera, gero segundan. (Galdakao)”*; *“Ba ite san a, mariketa pe klasiek ego- te sien erraidxa klasiek, batzuk u, yoan saltu inde, saltu inde (Zollo)”*

TAIDXE (Zornotza): *“Taidxen, ori ixete san grediagas eñ olan, da gero olan anka batas, botate san arridxe”*

TRUKAME (Mungia): *“ori ba itte san, greda edo suri beteas ba iñ igual sei kuadru edo sortzi esta? kadera baten ganean in ber ixete san salta danak, eta gero igual esaten sendun bi era batera pasa ber dosusela edo iru”*

TRUKAMUKE (Lekeitio): *“Trukamuke ero ori bai, itten gendusan letrak eta gero koxo koxoka ibiltten giñin gañian bai, selako usena dauko beorrek, arrid- xas, arri bateas itten gendun iru, lau, bost, da gero itten gendun aunan da gero itten genduan lau, allegaten sanin laura erdittik bi, esta? da lau ta bost ipiñi da gero ona arridxa botaten gendun laura da gero dxo ta bostera pasa gero, da ori be bai gure denpora, Jesus!”*

4. ZABUKATZEKOAK.

Zabukatzeko olgeten hitzen artean bi bereiztuko ditugu; batetik, gurdia- ren partikan isterkolaka paratuta egiten zena, eta bestetik, txinboari emoten zaizkion izenak.

4.1. Gurdia- ren burteuna edo partikan egiten den jokia.

ANDALAPUNTE IÑ (Forua); KIRRINKARAN (Zeberio.); TXIRRINTXARAN (Gatika): Burdiaren partikoaren puntan bat jarrita besteek burdiari eraginda gora eta behera erabiltzen dute.

KIRRINKARRAN (Bakio, Mungia, Zeanuri, Zollo): *“Paretan dire, au da burdidxe esta? ta a teko partikie, ganaduek engantxetako, ta atzien dxesarritze bi edo iru, eta an bat pareta san ba istrukuluke, oratute, se eukitxen deu orrek ganadueri aurrera pasa estakidxuen olan tabestxu bet, bertan a, busterridxen sartute, ta olan paraten da ta gero atzetik kirrinkarran. (Bakio)”*; *“para an, an a sera, partiken yesarri tte atzeti danak burdiri sakatu te ara gora (Mungia)”*; *“Ak an toleta eukiteun ta areri agarrau, t’an paretasan bat eta bestiek atzien da- nak ibilte sien yingon baya puntan dabilena ibilte san sakan.(Zollo)”*

SURINGO LAU GORRINGO: *“An puntan parate san a, bat, bueno kuadrille an burdiñ atzekalden ta altzaten gendun punte gora ta “Suringo lau gorringo” esaten gendun an atzen, esateyen berak burdin puntan egote sanak, goyen, ta an atzen oten giñen kuadrilla gustik “nor dosu nobie?” ta berak kontestate yen ba, fulano edo fulana edo, segun nortzuk oten giñen eta bueno ordun baxate san ta a etorte san kuadrillera ta ostabere a, berak elejidu i yena gurpuntera.(Lemoiz)”*;

“*Burteunien imiñitte, ba atzien bi edo iru parau, gurdidxen atzien, gurpunten bat eta artu te deun! gora, atzekoak beye dxo arte.* (Zornotza)”

4.2. Txinbaren izenak.

SIBO (Elantxobe.), SIBU (Nabarriz), TXIBU (Lezama), TXINBO (Abadiño, Gatika, Larrabetzu, Sopela, Zornotza), TXIN-TXAUN (Abadiño)

5. JAURTITZEKOAK

Ataltxo honetan hiru mota bereiztuko ditugu; batetik, harri, intxaur, txapa, kanika etab jaurtikitzekoak, eta bestetik, txirikila deritzona eta kinkina.

5.1. Harri, intxaur, txapa, kanikak jaurtitzeroak.

ARRI-ARRIKE (Gatika, Lezama, Urduliz): Harri-harrika.

BOTXIKE (Bermeo.): Botxoka, intxaurrak edo kanikak botxoan sartzeko jokoak.; “*Aulan sera etxa, distantxitxi da gero urren sein yauen a etxa botxire, da ara sulora etxakeran espasu asertaten ba bestik irebasi, melokotoyen asurrekas.* (Bermeo.)”

BOTXO (Bakio, Galdakao): Kanikak edo intxaurrak sartzeko lurrian egiten den zuloaren izena.

BOTXORA (Bakio): Intxaurrakaz egiten den jokoak; “*Intxurrekas klase bitxera, itxe san erraidxe bat, klase bi ixen siren e, erraidxe bat esta? eta koitan su intxur bet eta botaten su lelengo ara erraidxera ta an parajien lotzen danak, kasureko lau egoten sienien lau, lau botateidxen ta erraidxetik parajien lotzen dana da lelengo ta koisteidxen lau ixen basien lau intxur koisten ditxus eskuen, ta ote san gero botxo bat, botxora esate san intxurrekas botxora, ta ara botxora botate san, botaten basus laurek eta sartzen basus barruen suretzako die intxurrek, ta bi itxen basu bi, olan arik eta akaburarte itxe san.*”

ERRAIRE (Zornotza): Intxaurrakaz egiten den jokoak; “*Txakur andidxeikas be bai, erraidxie inye ixete san ara, señek urrau erraidxera botaten deuen da, da gero danak artu, ariñen itteuenak amar baebixen, amar txakurrek artu, da gero danak gora bota karaikrus, an urteteurenak noberentzako da orrek gausok iten siren baya.*”

ERRE-ERREKA (Nabarriz, Zeanuri): Intxaurrakaz egiten den jokoak; “*intxurrekin guk esaten gendun erre-erreka, ori ixete san plasan parau te, ba bestiena jo.* (Nabarriz); “*Intxurrekas arkal yoten, segiduen bidean bota bata, da besteak yoten baoan intxurre iribasi ostantxien, iten boan e, onegas atzamarragas, biek arkalegas goatzeko moduen orduen be iribasi ite oan, arragas, iribasi ite oan.* (Zeanuri)”

KANIKAKA (Elantxobe.), KANIKETAN (Mungia), KANIKETARA (Galdakao): Kaniketan

KASTOR (Gatika): Intxaurrakaz egiten den jokoak; “*Intxurrek imiñi olan a, illedan olan, erdin bat kastor, a yoten, a yoeskeron danak berantzat, illedan imiñi intxurrek esta? ta kastorra emen erdiñ, olan a, yoten, a yoten badeu txikerra danak beranak, eta ostantzen yoten direnak bere bai.*”

KASTORRAN (Dima) Intxaurren jokoak, “*katxine*” da erdian uzten den intxaurra.

KASTORRERA (Barrrika): Intxaurrakaz egiten den jokoak; “*intxurrek illedan imiñi tte lau bet pausuko distantzittik intxurre yaurtata ataraten.*”

KISTOR (Mungia): Intxaurren jokoan azkenean jartzen den intxaurrik txi-karrenaren izena.

KISTORRERA (Mungia): Intxaurrakaz egiten den jokoak; “*enei! intxurrekas? imiñi olan illedan igual a, ogei intxur esta? eta bat a, atzerengo, kistor, atzerengo, eta olan bean bota, eta ia senbet libretan dosusen, eta kistorra yoten badosu ta ataraten badosu an arraya intte daun lekuti danak seurek*”

POTXI (Nabarriz): botxo

POTXIKE (Nabarriz): Intxaurrekin egiten zen jokoak potxoan sartzeko; “*ein potxi bat esta? da araxe bota*”

POTXOLARA (Zeanuri): Intxaurrakaz egiten den jokoak, urrunetik jaurtita potxoan sartzeko.

TXAPATAN (Gatika, Lezama, Zeberio, Zollo): Txapatan; “*Txapatan a, txakur andik imiñi illedan ta bere bai, olan imiñi (Gatika)*”; “*Isitesan yoaskero be, ya koitan sindun, ya surea isite san, da yo esik, ba arragas koitan basindun ya surea san baye koyau esik es (Zeberio.)*”; “*Gero sera be olgetan giñun sano, kartoyekas, kartoyak misto kajanak, orrikas olgetan gindun asko, txapiegas da gero arra, olan a elduten bada edo espada, eldu esik, su pota bosu bestie kero erasao ipinten dau te ak (Zollo)*”

TXAPATARA (Dima, Zeberio): Txapatara; “*Txapak, isitesan seinde porrejemplo, iminten gindusen e, ni pat su peste bat, danok bana es, arkalen ganean da gero eukite gindusen ba, burdiñetxuegas inde erredondoak edo kuadradeuk edo dana dalakoa, burdiñetxuegas inde, d’aik egote sirian arkalen ganean, da itesan erraiye, d’andi kanpora atara beasan, lenengo tokaten yakonari, sorteora bota beasan, nori toketan yakon, se pillorik andiena..., ta ai txo ta ataraten sindusenak erretirau andik kuadroti kanpora saureak siren. (Zeberio.)*”

TXIKOTXETARA (Zollo): Intxaurrakaz egiten den jokoak; “*Itesan sulotxu bet, potxotxu bet in, da olango distentzi beten imini, da ara sartetara, da estau-nak asertetan esaun aukiten punturik, ara sartu in beasan, gero botaten diesanak berenak eta olango, batzuk untxur gustik galduteuresan a dala ta estala ta beste batzuk apunteridxe deukenak aik atara*”; “*Txikotxetara da untxurrekas, ile-dan ifini, da bat andigoa erdidxen, t’a bota.*”

TXISTIÑERA (Forua): Intxaurrakaz egiten den jokoak; “*txistiñie imintten san amen intxur txiki txikitxu bet, amen imintten da txistiñie amen doye ille-die, amen txistiñie erdidxen, txistiñie ataraskero dana berantzat.*”

TXISTORRERA (Bakio): Intxaurrakaz egiten den jokoak; “*Imintxen da olan a, len esan doten moduen, onetara kuadru bet intxe esta? lurrien eta olan markak eta emen imintxen da bat erdidxen, eta gero eskiñetan, ori bolaka moduen da, a bere igual igual da, erraidxie itxe san erraidxera botate san eta lelengo toketan dakenak tiratuteidxen ara, ta au erdiko dxoten basendun bi balidxoisan ak, eta eskiñekoak dxoten basu bat.*”

TXISTORRAKA (Bakio): Intxaurrakaz egiten den jokoak.

TXITXILINPOTXELA (Zeberio.): Potxoak, txorkoak intxaurrak sartzeko.

TXITXILINPOTXELARA (Zeberio.): Intxaurrakaz egiten den jokoak; “*Txitxilinpotxelara intxurrekas seinde intxurrek bakotxak bi edo iru, es bueno bana isitesan, an iminten gindun onango sertxu bet, sulotxu bet, ta ara barrure geyen ba, botaten dauenak gero an barruen dausenak koiteuesan.*”

TXOLOKETA (Lekeitio): Intxaurrakaz egiten den jokoak; “*Txoloketara, intxaurrakiñ itten genduan aunan egoten sirin igual arridxak kalietan da sulotxu or, da aixe ixate san txolua, da botaten gendun esta? d’igual batena barruan*

sartze san txolo, da ordun ba irabasi, baña amen geldittuten basan bat eta auna ras dxo ta sulora, ras dxo ta sulora, da gero ba irabasi, irabasten dabenak ba intxaurrek emon biar, bi botaten basendusan bidxak galdu da bestela ba irabasi.”

YO TA ARRA (Larrabetzu): Txapakaz egiten den jokoan norberaren txapaz besteena joz gero, hau esaten da eta txapan arteko distantzia neurtu egiten da.

5.2. Txirikila.

ESTRINKA (Orozko): Txirikilan; “*Botateuenak irebasi, guk bolando iten gendun, botetan dotzenari kuxu ai te beste orregas, estaka orregas ba emon ba, aik ekarte artiño besteak estait senbet in berruesan, ak a urrun bota eskeruenin, buelta in orduko estait bost edo sei edo segun, ser iminte san.*”

PITXE (Bakio), TXIRIKILLO (Gatika): Txirikila

PITXEKA (Bakio): Txirikilan; “*Paluas dxo bai, itxe san, imintxe san a, kasu beterako onen maidxen ganien es, bueno en jeneral munen, munen imintxe san edo maidxen ganien edo kaja baten ganien, eta itxe san, imintxe san pitxie, palu bet aldardi bidxetatik sorrostute, eta imintxe san olan, oseake salta idxen, eta dxoten senduen amen paluas señek asauau bota orixe ixen san, eta megidu itxen sensun beraas paluas megiduten sendun señek asauau bota deun eta ak irebas-teidxen.*”

TXIRIKILA (Igorre, Zeanuri, Zeberio): “*Txirikilea, makiña bat in doas nik, neure denporan, palue bat onexen tamañukoa, txirikilea tekos punte biek sorrotzak, ta olan paraten da, da emen yoten dosu tak yota gero gora, norberak yo beadau a, paleas be bai de palues be bai urrinen botaten dauenak, ifinten dosu olan, landan igual, yo ta urrinen botaten dauenak. (Igorre.)*”; “*Ba, palu bet, bestea sorrostute, da punten yota bota, lenengo aldikadan isite san a, yaurti iten gindun palue egas a txikerra, baya gero orti txikerra yaurtite san bere lekuti, paluegas yota, da gero paluegas neurtuten gindusen senbet palu dauen ba kontetan gindusen lusarien, lusarien paluek kontau iten gindusen, terrenoa neurtu, luseagas txikerra yo punten, ta senbeta urrinego yoatea a isite san balienteena, punten yo ta senbeta urrinego yoan, gero bidean goatzean bagindun, ba aregas beste palu nagusiegas, bidean arrapaute be, a oindo urrinego eroan ta libre eukiten gindun, libre eukiten gindun ori, txirikilan sano iten gindun guk! (Zeanuri)*”; “*Txirikilea da pañu betegas da, a bota ta señek urrinago bota ta an tantuek isite sirian. (Zeberio.)*”

TXIRIKILLA (Abadiño, Galdakao, Zollo, Zornotza): Duela hogeitamar bat urte inguru bere erakargarritasuna galtzen hasi zela. Garizuman gehien bat jokatzeko zen haur eta kozkonduagoek ere. Hauexek ziren behar zirenak: “txirikilla”, hogei zm inguruko zotza puntak zorrotz zituena. “makillie”, metro erdi inguruko makila. “petue” lurtean egindako borobilune bat, bertan “txirikilla” sartu behar zen.. Jokoa atal bitan banantzen zen jokua, argitu behar dena zera da: jokua zuzentzen zuena “txirikilleroa” izaten zen, bera peto barruan egoten zen eta petotik ksnpora jaurtikitzen zuen txirikilla makilaz jota, eta jausten zen lekutik borobilean edo petoan azartatzen zuen partaidea, bera izaten zen txirikilleroa, bertara txirikilla sar ez zedin oztopoak jartzea zilegi zen, hau da jertsea edo beste zerbaitekin bidean geratzea. Bigarren atala beste hau izaten zen: Berriz txirikilla petoan jartzen zen eta zegoen harritik, ze petoan maila bat egoten zen, eta handik ahal bait urrunen bota behar zen, distantzia makilaz neurtzen zen, urrunen botatzen zuenak irabazten zuen.

(Abadiño)”; *“Onango sati bet, puntea atara oneri ondo ondo eta oneri be bai, da gero beste palu bet onango lusea edo olantxe, a ifiñi, satie ifiñi an bean, punten yo, da klaro punten yo orduen txirikilleak gora igoten deu, da gero yoten bosu, ka yo ta txirikillea bota urrin, señek urriñao, da urriñen botateuena, a txirikillea, arek iribasteuen (Galdakao)”*: *“Txirikillan olan palu txikitxu bet, da beste bategas bota ta, gero agas tantuk in, puntatxu bidxek sorrostute imiñi txikerrari da a puntie jo ta gero kontau paluegas da tantuk iteko (Zollo)”*

TXIRINKILLE (Zollo): *“Txirinkillie da olangoa, laburre da txirinkillie, da palue lusiago, da aik ipinten dire puntie sorrostute txirinkillie, da gero a bota, da gero ta urrunago, bota, ak txirinkilliegas gero tantuek iteko sertute, seinbeta urrunago ta gero paluegas, seinbeta urrunago bota ba onanbeste palu, ta kontaute allegau esik galdu, baye a la txikita da, txirinkillie olangoa da es? ta baten da bigarrenien jo da gero paluegas barik a txirinkilliegas kontetakoa da distantzidxe, emetik ara onanbeste palu dauket, da igual su dudan saus de su kontradixoa basara, benga kontau d’agas megidu, de ala txikita es, isite san txirinkillie olan bi bider joaskero a la txikita, baye a kontetasan paluegas barik txirinkille laburregas. (Zollo)”*

5.3. Kinkina.

Makiltxo edo burdina zorrotz bat lurrean sartzeko egiten den jokoa.

INKE (Lezama), KINKE (Zollo), KINKIN (Dima): Kinkina

INKEKA (Elantxobe, Lezama), INKETAN (Bakio), KINKERA (Zeberio.): Kinkinka

KINKINKE (Dima, Zeanuri): Kinkinera; *“Sorrostu iten gindusen paluek, eta kuadrillan sartzean gindusen lurtzen, da bata besteagas atara, nik ataraten banoan e, loka daona, a artu te urrin botatea eukiten gindun libre, urrin ekarteko a (Zeanuri)”*

6. TREBEZIAZKOAK

KROMOKA (Elantxobe, Ibarrangelu): kromoka

SAKAN (Zeanuri): Tabaka; *“Sakan? kantau, sakas una, sakas dos, sakas tres, culo, carne, pon, kanikea gora ta, seirek, botate sirean seirek batera bai? batzuk pareta sirean, ponesen isineskeo iru edo lau igual ondo parau, ostantxien ba a alztzetan dabilenean kulo besteak imini bearrisit situen kanikea goiti den artean (Zeanuri)”*

TABAK: *“Amasei taba, danak eskendusen eukiten tabak, taban asko! korruen paretan gintzesan, senbe lagun? lau, edo sei, edo bost, edo, eta, ni akordetanas giau, ba sortzi tabara edo olan iten gendun, se giau eukiten gendun, ba boltzan gordetan gendusen, eta kanike pe, señe tekosen giau te, estakisu? olan gora bota eta lelungokoa, bigarrena, su era baten isete san lelungokoa, buelta emon biotzesun, bueltak emon eta gero rra dana koyu, señek puntu giau in, tabia gora begire egotesan lelungokoa, bigarrena beras begire, irugarrena albos, laugarrena beste albos, eta gero, olan dekosusela bota kanikia ta danak batzean ara, puntuek eske senbe taba lotzean datzusen koyu barik, arek konteu iten sendusen, eta a yotesan eliminetan, onenbeste iten deuena falleu, ba a kanpora. (Larrabetzu)”*; *“Tabena ixate san aunan kañikia, da bota esta? bi, alako bi, asur bi, ta gero ixate san aspidxa, lelengo, da gero a itten sanian gero gañia, da urteten baban aunan da gañia ipiñi biar bota kañikia da ra buelta in biar bajatu orduko, politta ixate san a, eta gero ori au-*

nan, alderdidxa, tente, da gero beste alderdidxa bai, bias itten gendun guk, kañiketara esaten gendun guk.(Lekeitio); “*Saca, pon, culo y carne* (Zeberio.)”; “*Tabie teukes lau aldiek diferentiek sakes, pones da estait beste bidxek, yakinindun nau pe olgetan ondo, baye onik i, ya ointzuragoko txikerrak estaure eukin afisiñorik tabakas, ori gaure denporako isin sen, kanikie bat eta beste dosena erdi taba, sakes, kules y carnes.* (Zollo)”; “*Tabia tekos kara bi, esta? lelengoko sillua da bigarrena gero lisue, da irugarrena sutunik, laugarrena beste bueltia emonda, gora bota kani-
kia da artu tabia da buelta emon beste bateri, danak batera askenien* (Zornotza)”; “*Tabak a, ote siren, aittu serari, iltte siren artxoak eta aumeak eta orreri a tabe kentxen sakean, eta tabek eukitte saudean alderri beteti lisu eta besteti alan a, uekotxu bet eta kanike bat, bean imintte sien tabak igual sei taba, eta primerara, segunda, tercera eta cuartara itte san eta kanike bota gora eta a goitti daun arten bueltea, esaten botzun bateri, emon ber dotzesu buelte edo biri airi emon ber seuntzen bueltea eta gero danatara emoten sendunean ba, bota kanike gora a por todas danakas oiñ eta danak koyu ber ixeten sendusen yoko itteko* (Mungia)”

TABAKA (Bakio, Forua, Elantxobe, Lezama, Mungia), TABAN (Dima): Tabaka

TABATAN EIN (Lezama)

7. IGERTZEKOAK

IKUSI-MAKUSI (Nabarriz): “*Ikusi-makusi, ser ikusi? ba, ikusten dot..., asten da, asten da*”

KONKONKA (Zeanuri): “*Konkonka esetz igerri, ba geuk pentzetan gindun gause bat, eta konkon da ia besteak igeriten dauen, esate baterako etze baten bisi dire, ba geuk pentzetan gindun, geuk barruen pentzau te aurek igerri bea dau-re gero ori, etze baten ba bisi dire, bisi dire esaten gindun, ba andra ta gisona da iru ume da amama ta aitite, da oin orrik igerri bea daure non dan ori etzeori, sein den.*”

Hona hemen batu ahal izan ditugun igarkizun batzuk:

Alkatearen makila:

“Basun dxadxo

basun asi

errire etorri

txe bera nagosi”

(Elantxobe: K. Agote)

“Basoan jadxo

basoan asi

errire etorri

tte bera nagusi”

(Nabarniz: J. Beaskoa)

Artaziak:

“Puntan punta bi

eperdidxen sillo bi

artasidxe tira

esetz igarri”

(Elantxobe: K. Agote)

“Puntan punta bi

atzin sillo bi

artasidxe ti txe

esetz igarri”

(Elantxobe: C. Fernandez)

“Puntan punta bi

atzen sulo bi

artesi tire ta

esetz iregarri”

(Gatika: B. Barandika)

“Aurren dekos punten

punta bi

atzen sillo bi

artasi tire te

esetz igerri”

(Mungia: J. Beldarrain)

Erratza:

“Bason yayo
bason asi
etzera etorri
tte yantzan ikisi”
(Gatika: B. Barandika)
“Basoan yayo
da basoan asi
etzera etorri
ta bastarrik bastar ibili”
(Zeberio: A. Arroita)

8. HIZKUNTZA OLGETAK

AUNTZEN BERBA (Sopela): Mezu sekretuak elkarri pasatzeko jokoa.

Atal honen barruan errexitutuak ere koka ditzakegu. Egiten diren era guztiak batzen ditugu; batzuk, nahikoa luzeak dira eta alderdi entretenigarria nabarmen dezakegu; beste batzuk, ostera, otoitzat jokutzat, eta abartzat jotzen dira.

AMUTIL, ESAIK BAT

“Amutil, esaik bat
gure jauna bera dok bat
berak salbauko gadxosak
Amutil esaik bi
bi argillak bi
gure jauna bera dok bat
berak salbauko gadxosak
Amutil esaik iru
iru trinidadia iru
bi argillak bi
gure jauna bera dok bat
berak salbauko gadxosak
Amutil esaik lau
lau ebanjelistak lau
iru trinidadia iru
.....
Amutil esaik bost
Jesuskriston bost llagak bost
lau ebanjelistak lau
.....”
(Otxandio: P. Olaso)

Baga, biga: “Baga, biga, iruga, laga, boga, sega, sapa, sotza, beatza tronpa”; (Leioa: Alizia Elordui)

DIRUE NUN?

“Dirue nun?
kartetan galdu
kartak nun?
suek erre
sue nun?
urek amateu
ure nun?
kortako sesenak edan
kortako sesena nun?
diruaittik saldu
dirue nun?
kortako armaridxuan usteldu.”
(Forua: P. M. Ansotegi)

EGUZKIA

“Eguskidxe badoa
bere amagana
bidxer etorriko da
denpora ona bada”
(Forua: B. Ansotegi)
“Euskidxa dxun da
bere amagana
bidxar etorriko da
denpora ona bada”
(Lekeitio: R. Atxurra)
“Eguskie badoa
bere amagana
bier etorriko da
denpora ona bada”
(Zeanuri: T. Zulora)

ERAGIOSU ESKUTXUARI

“Eragiosu eskutxuari
beñ alde batera
eta gero bestera”
(Elantxobe: K. Agote)³

FRAIDE MONDRONGO

“Fraide mondrongo
dungo kandia
ama nun da?
urune eralgiten
urune setako?
olluentzako

3. Berau umeari esaten zaio eskuari eragin diezaion.

olluek setako?
 arrutze itteko
 arrutze setako?
 abadientzako
 abadie setako?
 mesie emoteko
 mesie setako?
 atzuentzako
 atzuek setako?
 aingeru bidxen erdidxen
 serua dxuteko”
 (Otxandio: P. Olaso)

KATALAMIXON

Ume txikiekin egiten zen (den)
 joku honetan umei ondokoa ahoz-
 katzen zitzaien eta jokua masailak
 igurtziz esaten zen azkenerako, txa-
 plastada suabeak ematen ziztzaiz-
 kion, edo gizona zkoa izanez gero bi-
 zarraz aurpegia igurtzi:
 “katalamixon
 nun ixen?
 kaltxelan
 sel ekali?
 gastue eta ogidxe
 nun itxi?
 armaidxuen
 nok jan?
 txakulek eta katuek
 eta niri?
 bape emon barik jan!
 sapi, sapi, sapi”
 (Abadiño)

KATARRAMIXON⁴

“Katarramixon
 non ixen?
 andikuen
 se itten?
 ogidxe ta gastaye jaten
 sapi, sapi, sapi”
 (Berriz: B. Zubizarreta)

“Katarramixon
 nundik etorri?
 Arabatik
 ser ekarri?
 ogidxe ta gastaye
 sapi, sapi, sapi”
 (Otxandio: P. Olaso)

LASTAN GOSO

“Lastan goso
 amoroso
 beti goso
 txipi, txipi txipi txin”
 (Elantxobe: K. Agote)⁵

MATXINGORRINGO GORRINGO⁶

“Matxingorringo gorringo
 bidxer denpora ona
 itten esposu laban erreko.”
 egas itten badau urrungo egunien
 denpora ona, itten espadau urrungo
 egunien denpora txarra.”; (Forua: B.
 Ansotegi)

“Iminten gindun atzamar pun-
 tan, marigorringo bier eguski egin-
 go, ta gero egas iteoan (Zeanuri: L.
 Ozerinjauregi)”

MIXO MIXOOOTE

“Mixo mixooote
 nun isen saraaate?
 sola guuunen
 ser eiiiitten?
 txitxi tte papa jaten, jaten, jaten”⁷
 (Aulestia: Maribi Unamuno)

ONEK ARROTZATXU EGIN⁸

“Onek gatza ekarri
 onek berakatza
 onek presteu
 onek probeu
 eta onek loditxuek dana akabeu”
 (Axangiz: A. Irazabal)

4. Errezitatu hau esaten den artean umeari eskuan kilikili egiten zaio, azkena esatean gorputz osoan.

5. Berau esaten den artean umearen aurpegitik norberaren eskuez igurtzaldi batzuk egiten dira azken esaldiagaz batera txalo egiten zaiola.

6. Marigorringoa harrapatuta esaten den errezitatua.

7. Umeari hau esaten zaion artean eskuak aurpegitik pasatzen zaizkio; azkena esakeran txaloak aurpegian ematen zaizkio.

8. Errezitatu hau umearen atzamarrak hartuta egiten da, atzamar txikerretik hasita.

“Onek otie ta egurre ekarri
onek sue bistu
onek olloa ill
onek pesteu
ta onek dxan”

(Bakio: J. M. Antxustegi)

“Onek arrotza topaban
onek plasara erun ban
onek sartena imiñi ban
onek gatza bota tzon
eta onek lodi lodidzek dana dxaban”

(Elantxobe: M. D. Eiguren)

“Onek arrotzatxu eiñ
onek topa
onek presta
onek gatza in ta proba
ta onek traga”

(Gatika: Kontxi Larrauri)

“Onek arrotzatxu eiñ
onek topa
onek presta
onek gatza bota
eta onek yan”

(Gatika: Esther Elgoibar)

“onek erosi deu arrotzatxu bet
onek ipiñi deu bridxiduten
onek bota tzo gatza
onek proba deu aputxu bet
eta onek lodi onek dana dxan deu”

(Ibarrangelu: A. Goitia)

“Onek arrotzatxu ekarri
onek imini
onek presteu
onek gatza bota
ta onek potolotxu onek dana aka-
beu”

(Larrabetzu: B. Arteaga)

“Onek arrotzatxu eiñ
onek topa
onek proba
onek presta
ta onek loditxuk traga”

(Laukiz: Felisa Otazua)

“Onek arrotzatxu erosi
onek prijiduten imiñi
onek gatza bota

onek proba aputxu bet
eta onek dana yan”
(Lemoiz: M^a Luisa Arruza)

“Onek arrutze topeban
beste onek egurre batuban
beste onek sue iban
onek prijidu iban
eta lodi onek artu ta dan dana jaban”
(Muxika: J. K. Aldana)

“Onek arrotzatxue ipiñiban
onek erretan ipiñiban
onek gatza botatzon
onek aputxu bat jaban
ta onek dan dana loditxu onek jaban”
(Nabarniz: E. Gabikaaldekoa)

“Onek arrotzatxu bet erosi
onek erretan imiñi
onek gatza bota
onek probau
te one tana yan.”
(Zeberio: A. Arroita)

ONEK ETA ONEK, ETA ONEK ETA
ONEK

Atzamarrak kontatzen egiten zen
jokua eta guztia esandakoan hogeit-
talau dira:

“onek eta onek, eta onek eta onek
bat estudiautzen oni
onek esan sion oni
dominatzeilie au te au
dominatzeilie au te au
onixek dire ogetalau”
(Abadiño)

YONITZEN AMAANA
“Yonitzen amaana
emoteko ogi,
amak esayesten
emoteko giltze,
aitean giltze;
yonitzen aiteana
emoteko gitze,
aiteak esayesten
emoteko gantze,
txarriaren gantze;
yonitzen txarriana
emoteko gantze,
txarriak esayesten

emoteko esne,
 beyaren esne;
 yonitzen beyeana
 emoteko esne,
 beyeak esayesten
 emoteko bedar,
 munearen bedar;
 yonitzen muneana
 emoteko bedar,
 muneak esayesten
 emoteko iriti,
 errementarien iriti;
 yonitzen errementariana
 emoteko iriti,
 errementariak esayesten
 emoteko pluma,
 arrayaren pluma;
 yonitzen arrayeana
 emoteko pluma,
 arrayak esayesten
 emoteko axe,
 itxasoan axe;
 itxasoak niri axe,
 nik arrayari axe,
 arrayak niri pluma,
 nik errementariri pluma,
 erremetarik niri iriti,
 nik muneari iriti,
 muneak niri bedar,
 nik beyeri bedar,
 beyak niri esne,
 nik txarriri esne,
 txarririk niri gantze,
 nik aiteri gantze,
 aitek niri giltze,
 nik amari giltze,
 eta amak emoyesten ogi”.

ZENBAKIAKAZ EGITEN DIREN
 ERREZITATUAK

Ataltxo honetan zenbakiakaz
 egiten diren sano errima ezagunak
 aurkezten ditugu.
 “Bat Matxin parrat
 Bi Matxin ipurdi
 Iru korta bete miru
 Lau otzuek jango al au
 Bost klost

Sei korta bete sei
 Saspi korta bete aspi
 Sortzi arkondara bete sorri txiki
 Beratzi katuei narrue eratzi
 Amar katue mar mar
 Amaika katue lukainka
 Amabi katuek bustenien kana bi”
 (Abadiño)

“Bat Matxin parrat
 bi Matxin eperdi
 iru kolko bete diru
 lau andreak galdu nau
 bost topa beako nau
 sei kolko bete bei
 saspi kolko bete baspi
 bederatzi katueri narrue eratzi
 amar katue marmar”
 (Dima)

“Bat Matxin parrat
 bi Matxin eperdi
 iru esko bete diru
 lau sardiña bakalau”
 (Elantxobe: C. Fernandez)

“Bat Matxin parrat
 bi matxin eperdi
 iru kolko bete diru
 lau sardiña bakalau
 bost koskotien kosk
 sei arkanak sei
 saspi korta bete baspi
 sortzi txakur bete sorri
 bederatzi katueri narru eratzi
 amar katueri marmar
 amaike kako bete lukainke
 amabi altzo bete madari.”
 (Forua: P. M. Ansotegi)

“Bat Matxin parrat
 bi Matxin eperdi
 iru ilbete miru
 lau sardiña makalau
 bost kokotien kosk
 sei prakak nasei
 saspi korta bete aspi
 sortzi txapel bete sorri
 bederatzi katueri narrue eratzi
 amar katueri mar-mar
 amaika kako bete lukainka

amabi altzo bete madari.”

(Forua: B. Ansotegi)

“Bat Patxi parrat
bi Patxi eperdi
iru, kolko bete diru
lau andreak galdu nau
bost ardiek kosk kosk
sei kolko bete sei
saspi kolko bete baspi
sortzi kolko bete sorri
bederatzi katueri narru eratzi
amar katuek kamaran marmar
amaka Mateok goyan kaka
amabi katuek bustenen kana bi”
(Gatika: Kontxi Larrauri)

“Bat Matxin parrat
bi Matxin eperdi
iru kolko bete diru
lau sardiña makallau
bost koskotian kosk”
(Ibarrangelua: A. Goitia)

“Bat Patxin parrat
bi Patxin eperdi
iru kolkoa bete diru
lau amak saldu nau
bost kosk kosk
sei korta bete bei
saspi kolkoa bete baspi
sortzi otara bete sorki
amar katue marmar”
(Igorre)

“Bat Matxin parrat
bi Matxin eperdi
iru kolko bete diru
lau sardina bakalau
bost kokotian kosk
sei korta bete bei
bederatzi katueri narrue eratzi
amar katue marmar”
(Larrabetzu: B. Arteaga)

“Bat Patxi parrat
bi Patxi eperdi
iru Patxi serrajeru
lau andreak galdu nau
bost pospoliñek post
sei nik esiñ asi nei
saspi esku bete baspi

sortzi kolko bete sorri
bederatzi katueri narru eratzi
amar katuk itten deu marmar
amaka katuk kamaran kaka
amabi katuk bustenen kana bi
amairu gorta bete miru”
(Laukiz: Felisa Otazua)

“Bat, Patxi parrat
bi, patxi eperdi
iru, kolko bete diru
sei gorta bete sei
bederatzi katun narru eratzi
amar katuk iten deu marmar”
(Leioa: Alizia Elordui)

“Bat Patxi parrat
bi Patxi eperdi
iru kolko bete diru
lau andreak galdu nau
sei esiñ asi nei
saspi kolko bete baspi
sortzi kolko bete sorri
bederatzi katueri narru eratzi
amar katu marmar
amaka sure amak goyan kaka
amabi aitxek eperdin amari”
(Lemoiz: M^a Luisa Arruza)

“Bat, Matxin parrat
bi, Matxin eperdi
iru, kolko bete diru
lau, sardiña bakalau
bost koskotien kosk
sei frakak nasei”
(Nabarniz: E. Gabikaaldekoa)

“Bat Matxin parrat
bi Matxin eperdi
iru kolko bete diru
lau andrea falta dau
bost kokotean klosk
sei kolko bete sei
saspi kolko bete baspi
sortzi kolko bete sorri
bederatzi gure katueri narrue eratzi
amar gure katue marmar
amaika gure katuek amari altzoan
kaka”
(Zeanuri: Pili Ziarrusta)

“Bat Matxin parrat

bi Matxin eperdi
 iru kolko bete diru
 lau andrea falta dau
 bost topau beako dau
 sei korta bete bei
 saspí plater bete baspi
 sortzi plater bete sorri
 bederatzi katueri narrue eratzi
 amar katue marmar”
 (Zeanuri: L. Ozerinjauregi)
 “Bat Matxin parrat
 bi, Matxin eperdi
 iru, Manuel diru
 lau, andreak galdu nau
 bost, kokotean klosk
 sei, korta bete bei
 saspí, korta bete baspi
 sortzi, kolko bete sorri
 bederatzi ausoko katueri narru eratzi
 amar, katue kamaran marmar
 amaka katuek kaka
 amabi katuek goyen buelta bi”
 (Zeberio: A. Arroita)
 “Bat Matxin parrat
 Bi Matxin eperdi
 Iru kolko bete diru”
 (Zornotza)

Otoitzat jo ditzakegun errezita-
 tuen artean batzuk ameseta txarrak
 eduki ez egitekoak izaten dira:

AMA SANTA INES
 “Ama andra Santa Ines
 itxen bot ames
 ona bada bidxon partes
 eta txarra bada bidxok alrrebes”
 (Nabarniz: J. Beaskoa)
 “Santa Ines
 bart in dot ames
 ona bada bidxontzako
 txarra bada iñontza pes”
 (Elantxobe: C. Fernandez)
 “Santa Ines
 bart in dot ames,
 ona bada biontzat
 txarra bada bapes”
 (Zeanuri: T. Zulora)
 “Santa Ines
 es in ames
 ondo bada bai
 te txarto bada es”
 (Zollo: N. Sagardui)

SAN MAMES
 “San Mames
 itxen badot ames
 ona bada bidxon partes
 da txarra bada jun didxen iges”
 (Nabarniz: E. Gabikaldekoa)
 “San Mames bart in dot ames
 amesa da gausa soroa
 esiñ eskondu littikela
 jibo dekon atzoa”
 (Urduliz: I. Gilisasti)

9. JOSTAILUAKAZ EGITEKOAK

ANDRAKILLA (Abadiño, Otxandio), ANDRAKO (Lekeitio): Andrakila.

GOITXIBERA (Sopela): Goitibehera.

TAJUE (Nabarriz): “*Amen beste bat esatu genduená, oiñ estot itxen, baya egur ba tau barrun, une esaten dxako, barruko ori, aundidxe dekona, da onen tamañukue eiñ ebai, atara, a una atara ta itxe san tubo metxue baya, da an ipintxen sendun edo papela edo baitxe eraiñotzan garaune be, errapido da baya, papela edo aren puntan ipintxe san ondo ondo atakaute esta? busti busti einde d’atzeko partetik beste bat, gero an suluen egur bat itxen sendun esta? da andik sartunde, ta! joeskero ak botateban da ondo atrapaueskero miñ itxeban, tajue esatetzon.*”

TARRATOLA (Orozko): Txirrinkola; “*Ba emen egote siren atxine au, onango, au baño txikerragoak, onan txikitxuaoak, oleskoak, eta gero emeti kontzerba kajak, onetara txipitxik da me metxuk, ba au baño eskastxuak, beste platera lan-goak, eta beste tapatxu bet ganean dala, d’an egote sien ba serak, madariskoak ta sagarreskoak, kerixaskoak ta, eta aik gabon egunian yan, da urrungo egunian areiri untza bat eta palue imini te tarratolea, jugetea, da gero areri untza bat sartute palu bet imini de tarratolea.*”

TIKI-TAUKI (Sopela) Bariku Gurenean mutilek elizan deabrua uxatzeko, edo juduak hiltzeko erabiltzen zuten zurezko tresna.

TIRAGOMA (Bermeo, Gatika, Igorre, Urduliz): Tiragoma; “*Tiragomie au-lako palo bi seren formie, da bertan goma bat, ta narro sati bet, bertan punten, bera arridxe ero ser dan imintxen dune ogimamiñek, igual, lodi lodi in agarra ta tak dxo.* (Bermeo.)”; “*Tiragomeagas be bai, tiragomea neuk inde gero tiragomea gomasko seragas, kamioan erruedako seragas, urkulue, ollagorra be il dot iños tiragomeagas* (Igorre)”

TRONPAKA (Bakio, Bermeo, Gatika): Tronpaka; “*Tronpaka itxe san olau sera, sirkunferentzi bet imintxe san, ta an erdidxen imintxen siren tronpak eta gero tiritute san ba, ataraten tronpoyas bai, tronpoyas, baya orretako in bixete san lelengo tronpaka señek gedxen dabillen a lelengo eta akabun gitxien itxen dauena buelta gitxien eraitxen tzenak akaburengo tirituten a, tronpoyas ataraten* (Bakio)”; “*Tronpaka bere bai, tronpe bota olan, eta tronpakas imiñi emen a, dirue, eta ataraten dana berantzako* (Gatika)”

TRONPAKETAN (Forua): Tronpan

TRONPAN (Zeanuri, Zeberio, Zollo); “*Tronpan olgau bakarrik, bota da, yantzan in aso, lantzen bin sera be bai, ipini txakurrandi bet edo txakur txiker bat lenago kobreskoak, da a bota nok urrunago bota* (Zollo)”

TXIRRIKA (Gatika), **TXIRRINBOLA** (Elantxobe, Lekeitio), **TXIRRINGOLA** (Forua), **TXIRRINKA** (Lezama), **TXIRRINKOLA** (Abadiño, Larrabetzu, Zeberio, Zornotza), **TXIRRINTOLA** (Zollo): Txirrinkola.

TXIRRITXOLA (Bakio): Txirrinkola.; “*Txirritxolak esaten tzeguen, txirritxolak aik biribiliek ekarte sienak oleskoak bakixu? oleskoak eta aspitxik eukitxoidxen loditxuaua eta ganetik eukitxoidxen meyaua eta itxen tzeuen surten berotu burdiñe bat eta sillo erditxetik eta gero imintxen tzeuen olan trabes bat eta kañabera baten bitxartien sartzen gendun emen eta olan ibiltxen señek ariñau.*”

10. GAINERAKOAK

BILBO IKUSI (Barrika, Gatika, Lezama, Urduliz): Umeak burutik hartuta eta altxatuta Bilbo ikusteko esaten zaie.

BIXITZEKA (Dima) **ETXEKA EIÑ** (Elantxobe.), **ETZE-ETZEKA** (Lemoiz): Bizitzeka, etxe-etxeka.

KANKINKABARA (Bermeo.): Kale bitarteko lau kantoien artean egiten zen umeen jokoa.

PUNTALAKABEKA (Ibarrangelu): Orratzakaz egiten den jokua, “puntalaka-be” esaten da orratzak jausten direnean.

SAKENKA (Abadiño): Intxaur bi esku ahurretan elkarren kontra ezarri, eskuak hanka tartean bermatu eta indar eginez bietako bat apurtzen ahalegin-du.

11. JOKUEN FORMULAK

Jokoetan errezitaturen bat edo beste sistemaren bat erabiliz azkenak irte-ten diona besteak topatu edo harrapatu behar izaten denean, berori izendatzeko honako hauek erabiltzen dira:

ASPI (Forua, Zornotza): “kontau te askenak urteten deuen aixe, kontaute bat, bi, iru, lau, gero toketan dxakona numeroa aspi geldittu, arrape doztut, estu esaten? bai (Zornotza)”

ASPIREKO (Zornotza)

BERAKO IXEN (Elantxobe): Jokoetan azkena dena; “*seinye berako?*”

LO EGIN: “*yoatesien, kuadrille bat ostonduten eta bat gerate san lo, eta konteu, konteuasketiño amarrerarte, porrejenplo badeko sera ifiñite numeroa, ba amarrerarte konteu da ostondu estana ba bistan ongo da.* (Galdakao); “*Bueno ogeigarrena tokaten dakona lo esaten gendun:bat, bi iru, lau sagusarrak yango nau, sagusarran alkate, Maria, Maria peluke*” ta ori tokaten dakonak lo itten deu gero, *nik estaitt ya ondo esaten badoas bere* (Gatika); “*Kikura bikura lakirikon sikula bikula unkalapon*” esaten gendun guk, *eta ori lo bera ta gero gu atrapatzen, ta gero atrapatzen ebana lenen e, ikustebana esateban e, selan esaten gendun guk* “*altza lamantza Miren*” esaten gendun ero, *beste bat basan ba beste bateri, da gero lenen atrapatebana geldittute san lo da bestiak osterabe martxa, iskutatu* (Lekeitio); “*ak, a, lo daunak a, ikusi baño lelau allegaten bada ara libre, ak esauen lorik in berrixeten* (Mungia); “*Ori da lo modun paraute besteak ostondu danak, ostondu orduen a yoaten da gero, lo daona, altzau te yoaten da topetan, ukututen butzo oneri, berak eskapatzen dauen orduen ukututen butzo oneri ak galdu iten dau lo daonak, ta gero bestea topetan doa* (Zeanuri); “*as-kenengo tokaten yakona lo iten geratute san an* (Zeberio.)”

12. ZOTZ EGITEKO FORMULAK

Jokoen hasieran kontatzen nor den jakiteko, edo “azpi”, “azpirako” edo “lo egiten” nor den jakiteko, honako hauek erabiltzen dira:

“Unin dolin pospolin, tres y cuatro bolatin, prakia un cordon, lau kuke-ta tabenera, salta ixu te fuera. (Laukiz: Felisa Otazua)”

“Unin dolin Antolin pospolin sindikato balentin erradura barradura plis plaus fuera.(Zeberio: A. Arroita)”

“Bat, bi iru, lau sagusarrak yango nau, sagusarran alkate, Maria, Maria peluke (Gatika: Kontxi Larrauri)”

“Ulin dolin tanbolin, tres y quatro belendin, erradura, barradura, plis plaust fuera (Larrabetzu: B. Arteaga)”

“Olin dolin pospolin, tres y cuatro balendin, erradura barradura, kils klas fuera. (Lezama: R. Goiri)”

“Kikura bikura lakirikon sikula bikula unkalapon. (Lekeitio: M. Urkiaga)”

“Ron ron kandel miki maka moskatel ya sarrido primiton dikun dikun alkon pres.(Otxandio: P. Olaso)”

“Dron dron kikilikon, serrak kuke serramon, pike pike tortolike, banbu serrek etako bu.(Aulestia: M. Unamuno)”

13. GORPUTZ EGOKERAK

ANKARKULUKE (Elantxobe., Nabarriz): Makurtuta, eskuak ere behearen gainean direla, hankak zabal-zabalik egotea.

AINKURKULU (Abadiño): Hanka biek zabal-zabalik egiten duten urkulua.

ALBOS (Lezama), ALBOSKA (Elantxobe.), ALBOSKERA (Forua): Alboz

ALATIÑ (Abadiño), ARATENES (Sopela), ARATENIK (Gatika, Urduliz), ARATIEN (Forua), ATINIK (Zeberio.): Aratinik

ANKARTOLA (Abadiño): Zaldi gainean edo, motorrean edo, hankak zabalik eroatea.

AOSPES (Gatika, Urduliz), AUSPES (Abadiño, Bermeo, Forua, Gatika, Gorkiz, Lezama, Sopela, Urduliz, Zeberio, Zollo), EUSPES (Larrabetzu, Lezama, Zeanuri): Ahozpez

ARINGA-ARINGA (Lekeitio): Arin arin esateko.

AUSKORA (Lezama): Ahozgora

AUSPESTU (Abadiño): Ahozpeztu

BEKOS GORA (Dima): Behekoz gora.

BURUS BERA (Dima, Elantxobe, Lezama): Buruz behera.

GOIKOS BERA (Dima): Goikoz behera.

ISTERKULUKE

1. (Sopela): Umea amaren kaderaren gainean istarrak zabalik.

2. (Elantxobe.) Umea oinean edo isterretan zabukatzea.

ISTERTOLAKA (Zeberio, Zollo), ISTERKOLAKA (Zeanuri), ISTRUKULUKE (Bakio, Gatika, Mungia): Asto gainean edo joatea hankak zabal zabalik.

Kokoriko edo kukulumixo egoteari ondoko era hauetara esaten da:

KUKULUMIO (Sopela), KUKULUMIXO (Forua, Gatika, Larrabetzu, Urduliz, Zeanuri, Zornotza), KUKULLUMAIXU (Barrika), KUKUMITXO (Zollo), KUKUMIXO (Zeberio.), KUKURUMIDXO (Abadiño)

Umea hankak zabal zabalik hartzen bada idunaren inguruan lepoan honako erataria esaten zaio:

ARREKIKILI (Larrabetzu), ARREKOKOSIDXO (Bermeo), ARREKOKOSILLO (Bermeo): *“erdu lastana arrekokosillo erungo saitzu”*, BISKERRETI KADERA (Zollo), ISTARTOLAKA (Zeberio.), KIKILI (Forua, Larrabetzu), KIKILITO (Lezama), TANTOBALLE (Lekeitio), TXIKON (Gatika, Sopela).

Umea hankak zabal zabalik bizkarrean hartzen bada, edo batak bestea hartzen badu honela esaten zaio:

APURRINGO (Zeberio., Zollo), ARREBORRIKITO (Galdakao), ARREBURRIKITO (Zornotza), ARRELEPO (Abadiño, Bermeo, Lekeitio), ARREPOTXIN (Dima), ARRETXIKO (Abadiño, Forua, Gatika, Larrabetzu, Otxandio, Urduliz), ARRETXIKOTAN (Erandio, Sopela), ATXIKO (Lezama), KALLU KALLU (Zeanuri)

Behearen gainean, buruaren gainetik, birak egitea honela esaten da:

ANDALAPUNTEKA (Forua), BURUSKAN (Zeanuri), KIKIRINBUELTAKA (Zeberio), KIKUNBERA EIÑ (Bermeo), KIKUMERA EIÑ (Bermeo), MUS (Lekeitio), MUS IÑ (Lekeitio), TXIRINBUelta (Gatika, Gorkiz, Sopela, Urduliz, Zollo), TXIRINBUELTAKA (Gatika), TXIRRINKOLA (Abadiño)

Behearen gainean, gorputzaren gainetik, birak egiteahonela esaten da:

BILINBOLA (Urduliz), **BILINBOLAKA** (Sopela, Zeanuri, Zeberio), **BIRIBUELTADA** (Bermeo), **BIRIBUELTAKA** (Bermeo), **BIRINBOLAN** (Forua), **BIRINBOLAKA** (Bermeo, Elantxobe, Lezama)

Korrika egiteari honela esaten zaio:

ABIDXADAN DXUN (Elantxobe), **ANDANADAN** (Bermeo), **ANDANAN** (Bermeo), **ARRAPALADAN** (Forua), **GALAPADA** (Lezama), **GALAPAN** (Zeberio), **KARRAN** (Zeberio), **KARRADERA** (Lezama, Mungia), **KARRADERAN** (Gatika, Lemoiz), **LAUANKAN** (Sopela)

Norberaren oinaz bestearen hankak katigatzeari honela esaten zaio:

ANKATRABALLU (Otxandio), **ANKURKILLO** (Abadiño), **TRABA** (Zeberio)

Behatzen puntetan ibiltzeari honela esaten zaio:

BEATZEN GANEAN (Zeanuri), **BEATZEN GANEN** (Gatika, Urduliz), **BEATZEN PUNTAN** (Zollo), **BEAS PUNTATAN** (Sopela), **BEAS PUNTETAN** (Lezama, Zeberio), **BIES PUNTETAN** (Elantxobe)

Hanka baten gainean ibiltzeari honela esaten zaio:

ANKA KOXOA (Zeberio), **ANKA KOXOKA** (Zeanuri), **KISKETEN IBILLI** (Gatika, Urduliz), **KOIXOKA** (Elantxobe), **KOXKA** (Forua), **KOXO-KOXOKA** (Lekeitio), **TXANKARKA IBILI** (Ondarru)

Umeak oinez hasi baino lehen honela ibiltzen dira:

KATAMAR (Abadiño, Zeanuri, Zeberio): “*Laster asiko da ori oiñez aspaldixen dabill katamar da* (Abadiño)”, **KATAMARKA** (Abadiño), **KATANAR** (Zornotza), **KATUKE** (Forua, Galdakao, Larrabetzu, Lezama, Orozko, Zeberio), **LAUANKATAN** (Elantxobe), **LAUOÑAN** (Abadiño), **LAUPATAN** (Lekeitio), **LAUTXAKUR** (Berango, Gatika, Sopela, Urduliz), **LAUTXAKURKE** (Lezama), **LAUTXAKURREN** (Sopela): “*oñes irekasteko imintxe akon olau a, bufanda bat, gure ama difuntek umeri imintxeutzen amarrata emeti garritxi olau bufanda sar bat, eta andi itxeutzen, ta andi aste siren. Pausuka asi baño lelau lautxakurren, bai lau txakurren ibiltxen da*”

LABURPENA

Artikulu honetan Bizkaiko lurraldean erabiltzen den ume-olgeta edo jolasen lexikoa aurkezten da. Hitz eta formulekin batera, batzuetan hitz eta jokuen euren esanahia argitzen laguntzen duten testu originalak ere ematen dira. Testuok ahalik fidelkien transkribatu izan dira. Lana 13 zatitan banatuta aurkezten da, gai honetan eskuaki erabiltzen den sailkapen bati jarraikirik. Helburua bikoitza dela esan dezakegu; batetik, datu linguistikoen bilketa eta argitalpena, baina bestetik, material honetarako batzuen errekonstruzioa eta eguneratzea ere lortu nahi dira, euskararen normalizazio prozesuaren barnean.

RESUMEN

En este artículo se presenta parte del léxico correspondiente a los juegos infantiles empleados en la provincia de Bizkaia. Junto a las palabras y fórmulas propiamente dichas, se incluyen en ocasiones textos originales que ilustran el significado tanto del léxico como del juego en sí. Estos textos han sido transcritos con la mayor fidelidad posible. El trabajo se divide en 13 apartados, siguiendo una de las clasificaciones comúnmente utilizadas en este tema. El objetivo del trabajo es doble; por una parte de recogida y publicación de datos lingüísticos, y por otra parte, se pretende la recuperación y actualización de parte de este material dentro del proceso de normalización lingüística del euskara.

RÉSUMÉ

Dans cet article, est exposé un extrait du lexique correspondant aux jeux infantiles employés dans la province de Bizkaia. En plus des mots et des formules proprement dits, s'incluent parfois des textes originaux qui illustrent aussi bien la signification du lexique que du jeu en lui-même. Ces textes ont été transcrits avec la meilleure fidélité possible. Le travail se divise en 13 parties, suivant ainsi l'une des classifications les plus fréquemment utilisées dans ce domaine. L'objectif du travail est double ; d'une part, recueillir et publier des données linguistiques, et d'autre part, récupérer et actualiser une partie de ce matériel s'incluant dans le processus de normalisation linguistique de la langue basque.

ABSTRACT

Part of the vocabulary used in children's games in the Province of Vizcaya (Biscay) is presented in this article. Along with the words and formulae themselves, some original texts illustrating the meaning of both the vocabulary and the game itself are also included. These texts have been transcribed as accurately as possible. The article is divided into 13 sections, following one of the classifications commonly used in relation with this subject. The objective of the article is twofold: the collection and publication of linguistic data; and to attempt to recover and update part of this material within the process of the linguistic normalisation of the Basque language.